

Bizikletari erabilera anitzak ematen dizkion herria dugu Arrasate: errepideko txirrindularitzan, mendikoan eta baita ere desplazamenduetarako. Herriko bizilagunak garen heinean eta suposatuz Udalak bizikletaren erabilera sustatzen ari dela, horretarako azpiegiturak eskaini behar zaizkigu. Gauza jakina da lokatza eta zikinkeria txirrindularion eguneroko ogia dugula. Zentzu horretan, Garagartzako Garbigunea oso urruti dago gure bizikletak garbitzen joateko, 30-40 minutu behar ditugu joan eta etortzeko. Neguan luze egiten da, familia kontziliaziorako etb. arazo bat izan daiteke. Gainera, Garbigunea ez dago bizikletak garbitzeko egokituta eta batzuetan kotxeak garbitzen dituztenek atentzioa deitzen digute.

Bizikleta zale kolektibo bat izanik, urteak daramatzagu bizikletak garbitzeko gune bat eskatzen. 2016ko martxoak 20an BAZen egin genuen lehen eskaera, 50 pertsona auzolanean bizikletak garbitzeko mangera bat jartzeko prest geundela esanez, formatu eta kokaleku ezberdinei zabalik. Udaletxearen erantzuna izan zen ez zuela zerbitzu hori aurreikusten. Denbora bat pasata, 2017ko apirilean, Udaletxeko kiroletako batzordera joatera animatuak izan ginen. Bertan gure proposamenak azaldu genituen berriz, inongo pegasarik jarri gabe mangeraren kokalekuari, formatuari edo ordaintzeari. Mangera kiroldegiko igerilekuetako ur soberakinarekin jartzetik, herriko beste edozein puntuan jartzearino, fitxa edo txanpon sistema batekin. Orduan zinegotzi ezberdinen babes eta interesa jaso genuen arren, gaur egun jaso dugun bakarria isiltasuna eta desinteresa izan dira kiroletako zinegotziaren partetik. Are gehiago, Udaletxean idatzi bat aurkeztu genuen txirrindularitzako eta mendiko hainbat kolektiboren izenean, baina hori ere ez da kontutan hartu.

Ulertarazi zaigu mangera jartzeko arazoetako bat bandalismo aukera dela, baina guk uste dugu herriarentzat zerbitzu bat gehiago dela, ur iturriak, eserlekuak edo umeentzako parkeak bezala. Guzti hauek auzo ezberdinetan aurkitu ditzakegu eta apurtzen direnean konpontzen dira. Are gehiago, mangera zerbitzu hain demandatua izanik, ehundaka herritarrengatik, guk geuk instalatzeko eta ordaintzeko prest gauden bezala, ziur gaude zainduko dugula.

Ezin da ahaztu Arrasatera eta konkretuki Musakolara kanpoko jende asko etortzen dela bizikletan ibiltzera, beste komunitate autonomo batzuetatik ere. Argi eta garbi, hori turismo iturri bat dugu. Tristetu egiten gaitu azaldu behar izatea ordea, Deba Garaiko beste herrietan ez bezala, non dagoeneko jarri den debalde eta arrakasta handiarekin gainera, hemen ez dugula bizikletak garbitzeko berariazko lekurik.

Bukatzeko, behin frogatu dugula Udaletxearentzat ez dela lehentasun bat, mangera eskatzeko mobilizazio ezberdinak abian jarriko ditugula iragarri nahi dugu, besteak beste sinadurak batu eta bizikletekin manifestazio bat. Uste dugu gure eskaera nahikoa justifikatuta eta babestuta dagoela eta ez duela horrenbesteko analisi denbora behar (3 urte). Inbertsioa justifikatua iruditzen zaigu Arrasateko hirigintzako eta kiroletako aurrekontuak ikusirik.